

EAEko hamar gaztetik lau liburutegietara edo mediatekatara joaten dira

Ikasten dabiltzanak gainerakoak baino gehiago bertaratzen dira


Urriaren 24an Liburutegien Eguna ospatzen dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) datu batzuk azalduko ditu. Datuok Euskadiko gazteak liburutegietara eta mediatekatara joateko ohiturari buruzkoak dira. Gazteen Euskal Behatokiak 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagina adierazgarri bati egindako inkesta batetik datoz datu horiek.

2012ko martxoan EAEko gazteen % 39k adierazi zuten aurreko hilean liburutegi edota mediatekaren batera joan zirela.

Emaitza horiek 2008an Kulturaren Euskal Behatokiak eginiko antzeko inkesta batetik ateratakoekin alderatuz gero, ikus dezakegu liburutegietara joateko ohitura zabaldu egin dela eta lau urteko epean % 33tik % 39ra pasatu dela.

Gure arreta 2012ko datuetan jarrita, esan dezakegu neskek mutilek baino zabalduago dutela liburutegietara joateko ohitura (% 45 eta % 34, hurrenez hurren).

Adinean gora egin ahala txikiagoa da liburutegietara joaten diren gazteen ehunekoak, eta 15 eta 19 urte bitartekoen artean erdiak baino gehiago badira liburutegietara hurbiltzen direnak (% 54) 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean laurdenak baino pixka bat gehiago izatera pasatzen dira (% 28).



Gazteak bizi diren udalerriaren tamainak ere eragina du liburutegietara joateko ohituran: udalerrri ertainetan edo hiriburuetan bizi direnak gehiago joaten dira (% 40), 10 000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi direnak baino (% 35). Azken kasu horietan ohikoa izaten da etxebizitzak sakabanatuta eta kultura ekipamendu horietatik urrun gotea, eta horrek ez du errazten joateko ohitura.

Hala ere, gazteen arteko alde nabarietak zeregin nagusiak eragiten ditu; ikasleak gainontzeko gazteak baino askoz gehiago joaten dira liburutegi eta mediatekatara: ikastea zeregin nagusitzat dutenen % 58 eta ikasketak eta lana bateratzen dutenen % 58 liburutegi edo mediateka batera joan ziren inkestaren aurreko hilean; lanean dabiltzanak eta langabezia daudenak, aldiz, askoz gutxiago joan ziren (% 18 eta % 19, hurrenez hurren).



Azkenik, Gazteen Euskal Behatokiak gogorarazi nahi du [Dokumentazio Zentroa](#) duela eta bertan fondo bibliografiko zabala duela, ia 4000 monografia eta gazterian espezializatutako 70 aldizkari inguru biltzen baititu. Dokumentazio Zentro hori zerbitzu publikoa eta doakoa da eta [Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen](#) barruan dago; horrek esan nahi du liburutegien arteko mailegu zerbitzua ere eskaintzen duela.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

